

"Zaindu beria bakoitzak"

Deia, 1983-08-11.

Gaurko egoera mikatz honetan, gure herriari zer bandera eta nola agurtu behar dugun indarkeriz agintzen ari zaizkigun sasoi honetan, *Kepa Enbeita* handiaz gogoratuz naiz.

Gure herrian bertsolariak askotan egin baitituzte sintesia harrigarriak.

Mila bederatzi ehun eta hogetakan Oñatin eratu zen jaialdi batean bertsotan hastera zihoala, herriak harrerako txalo handia ematen ari zen unean, entzuleen arteko norbaitek giro hartan probokatzailea zen deihadarra hau bota zuen: "Viva España!". Unetxo bat galdu gabe, Enbeitak honela erantzun zion bere ahots gozoenaz:

"*Viva España!*" didarka dagoz,
neuk bere viva! dirautzaz,
gorrotorikan eztagolako
nigandik España'rentzat.

"Katolikuok jakin dagigun
zer diñon goiko Juezak;
'Besten gauzari bakian itxi
zaindu beria bakoitzak'.

"Augatik, *viva!* diñot berriz be,
ixan bei Españarentzat;
baita be diñot: 'Gora Euskadi!',
geuria da-ta, guretzat".

Zaila da bat batean eta deihadar horren karga gaiztoa minik gabe leher arazteko behar zen lasaitasun barea; honen jabe denak ba du esku eta bihotz zabala. Deihadarra egin duen baino zabalagoa, honek intolerantziatz gainera zitalkeria erakusten baitu. Bien artean, gerra erraza da, indarkeriako deihadarraren atzetik borrokarako amorrazioa agertzen baita.

Enbeitak ez dio asarre erantzuten; erantzun horrek asarrea ere merezi ez duelako.

Kepa Enbeitaren indar moral hau indartzen duen sinismena datorkio; Jainkozkoa bat, noski, halako gizona baitzan!, baina sinismen horretan justizia barruan dago, ba daki bere aberria hizkuntzak eta herriaren barruak erraz asko erakusten duen Euskalerrria dela, bertsotan aise agirian jartzeko hainekoa:

"Ebro'z emendik lau anai gara, Bidaso'z andik beste bi:
Bizkai, Gipuzko, Araba, Napar, Zubero eta Lapurdi.
Bidasoa'ren alde banetan Endaya eta Ondarrabi;

Erreka (y) andi orren ganian zubi bat biogu jarri;
Anayok elkar besarkatzeko geu joan, eurak etorri,
Laztan amonaz Amari.
Sei semiokaz azke-zoruntsu bizi dedintzat Euzkadi".
*"Sei semiak"*¹

¹ *Enbeita'tar Kepa, Gure Urretxindorra*, Ekin, Buenos Aires, 1971.